



“Pasaiaiko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren Berrikuspena” dokumentua aurkezteko eta Pasaiaiko eragile sozial eta ekonomikoekin kontrastatzeko prozesua



Laburpen eta ixte bilera: **emaitza agiria**

Maiatzak 17, asteartea, 19:00etatik 20:00ak arte

Pasaiaiko Udalaren Trintxerpeko Alkateordetzan

Gaur, maiatzak 17, maiatzaren hasieran abian jarri genuen “**Pasaiaiko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren Berrikuspena**” dokumentua aurkezteko eta kontrastatzeko prozesuaren laburpen eta ixte bilera egin dugu.

Saioaren helburuak honakoak izan dira:

- **Konklusio nagusiak partekatzea**, hau da, Berrikuspen dokumentuko edukiei buruz egin genituen 2 kontraste lantegietako konklusioak partekatzea, maiatzaren 11n egin baikenituen lantegi horiek, Pasaiaiko Portuko enpresa eta eragile ekonomikoekin batetik, eta Pasaiaiko eragile sozialekin bestetik.

Konklusio horiek dokumentuko zenbait kontu eta proposamenen ingurukoak dira; horien artean harrera ona izan duten batzuk daude, eta eztabaida edota desadostasun gehiago sortu duten beste batzuk.



- Egin dugun aurkezpen eta kontraste prozesuaren garapen eta emaitzen inguruan **hitz egitea eta** eragile protagonista eta inplikatuena **gogoetak biltzea**.
- **Prozesua ixtea**, posible egin duten pertsona, eragile eta erakunde guztien inplikazioa eta partaidetza eskertuz.

Horrekin guztiarekin, bilerako ideia nagusiak ondoren datorren eskeman bildu dira:

- Parte hartu duten pertsonak
- Emaitzen laburpena eta Plan Berezia Berrikusteko dokumentuaren kontraste lantegietan lortutako klabe nagusiak
- Prozesuari eta honen emaitzei buruzko gogoetak
- Eskerrak ematea eta ixtea



1. Parte hartu duten pertsonak

Aurretik egindako lantegietan izan ziren elkarte, gizarte eragile eta enpresei bidalitako gonbidapenari erantzunez, bileran **17 pertsona** izan dira. Zehazki, honakoak:

Pasaiako erakundeak eta elkarteak:

- Sanpedrotarra Arraun Elkarte: Josetxo Aranburu
- Trintxerpe Kulturala: Enrique Santiago
- C.D. Trintxerpe: Eduardo González
- Itsas Gela: Izaskun Suberbiola

Portuko enpresak eta eragileak:

- Giport: Joseba Etxeberria
- Asecogi: Inazio Fachado

Pasaiako Udala:

- Nahikari Otermin
- Lore Suárez
- Iñaki Ormazabal, udal arkitektoa

Pasaiako portua:

- César Salvador

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Marisol Garmendia
- Miguel Ángel Crespo
- Joseba Muxika
- Marivi Alvarez
- Iñaki Elizegi
- Josu Alonso

Eusko Jaurlaritza:

- Fernando Uriondo

Beste batzuk:

- Luis Socias
- Irene Prieto
- Dinamizazio taldea: Zorione Aierbe eta Iciar Montejo

Guztiori, eskerrik asko!



2. Kontraste lantegiak: emaitzen laburpena eta klabe nagusiak

Iciar eta Zorionek, prozesua ahalbidetzeko taldekoak biak, taldearekin partekatu dute maiatzaren 11n egindako **kontraste lantegien emaitzetatik ateratako ideia nagusien irakurketa eta laburpena**.

Horretarako, eta lantegien egiturari jarraikiz, gogoratu egin dituzte Plan Bereziaren zenbait kontu edota proposamen:

- Batetik, parte hartu duten pertsona eta eragileen **balorazio positiboak** jaso dituztenak.
- Eta, bestetik, partaideen artean eztabaida gehiago eragin dutenak eta **analizatzeari, hobetzeari edo birplanteatzeari beharrezko irizten zaienak**.

Laburbildurik, eduki partekatua honakoa da¹:

- **Balorazio positiboa jaso duten Plan Bereziko alderdi eta kontuak**
 - Herrerako biltegi espazioak.
 - Portuko Agintaritzak portuko interesak eta hirikoak konbinatzearen egindako ahalegina.
 - Portuarentzako etorkizunera begirako planteamendua, epe luzera begira, interes politikoetatik harago.
 - Ikuspegi errealista eta posibilista batetik jarduketa bat planteatu da.
 - Gomistegiko biribilgunea osatzeko ahalegina (nahiz planteatzen den aukera hobetu egin daitekeen).
 - "Behar bezalako" arrain-lonja bat prestatzeko ahalegina.
 - Ontziolak egiten duen analisi zehatzetik, planteatzen diren eremu berriak.
 - Turismoaren eta kulturaren ikuspegitik, planteatzen den "aurpegi garbitzea".

¹ Xehetasun gehiago izateko, maiatzaren 11n portuko enpresa eta eragile ekonomikoekin eta Pasaiaiko gizarte eragileekin egindako lantegietako aktak kontsulta daitezke. Emaidza agiria. Laburpen eta ixte bilera.



Pasaia-ko
gizarte
eragileen
aldetik

- Euskotren-en geltokitik hurbileko mendebaldeko zonarako egiten den proposamena: pasabidea.
- Euskotren-en geltokitik eta ezker aldeko bazter osoan zehar planteatzen den oinezkoentzako zona eta pasealeku lineala.
- Lurpeko aparkalekuetarako proposamena eta beste plaza aurreikusiak.
- Plan Berezian jasotzea Pasaia berroneratzera begira lehenbailehen zerbait egiteko premia dagoela.
- Erakundearteko presentzia eta laguntza.

• **Hobetu daitezkeen kontuak edo alderdiak**

1. Gomistegitik Porturako sarbide independente eta eskusibo baten beharra

- Planak zehaztasun handiagoa behar du puntu honetan, lurzorua erreserbatzetik harago.

2. Euskadi Etorbidetik kamioiak igarotzea Arrandegi kalera iristeko

- Euskadi Etorbidetik igarotzen den kamioi trafikoaren inpaktua nabarmena da, eta handiagoa izan daiteke lonjari izaera estrategikoa ematen bazaio. Gainera, horrek talka egin dezake, aurrerantzean kaleko trafikoa baretzeko hartzen diren neurriekin.
- Beraz, irtenbideetan kalte gutxien eragiten duena bilatu behar da.

3. Herrera Iparreko lurzorua

- Enpresa taldeak ez dio beharrezko irizten hirugarren sektoreko erabileretarako espazioak zabaltzeari, eta portuko erabileretarako biltegiak mantentzearen alde egiten du - batez ere merkantziak biltegitratzeko-.
- Lanpostu zuzen zein zeharkakoen terminoetan aztertu beharreko kontua da.

4. Portu/hiri elkarbizitza

- Onartu behar da Pasaia eta Portua elkarren beharrea direla.
- Eta elkarbizitza horretan Portuko enpresek eginkizun garrantzitsua dute sor dezaketen ingurumen eta ikusizko inpaktua minimizatzen begira.



Pasaiako
gizarte
eragileen
aldetik

1. Plan Bereziko ekipamenduak: zenbait, non, zertarako:

- Gaur egun Pasaia aisialdi, kultur eta kirol espazio eta ekipamenduak behar ditu. Aldi berean, Plan Berezia hainbat zuzkidura jasotzen ditu, Ospitalillon aurreikusitako plazako ekipamenduetarako; horiek zehaztu egin beharko dira Plan Berezia onartzen denean.
- Gizarte eragileek elkarrekiko lana eskatzen diete eskumena duten erakundeei eta gizarte entitateei, eraikin horietarako erabilera posibleetarako planteamenduak eta proposamenak definitzearen, egun dauden beharrak harturik abiapuntu; eta, ahal den neurrian, formula eta ideia berritzaile eta irudimentsuak aplikatuta.

2. Kamioiak Euskadi Etorbidetik igarotzea:

- Kamioi trafikoa inguruan duen inpaktu negatiboa eta kalean egindako hobekuntzak direla eta, irtenbide alternatiboa bilatzea eskatzen da, hain zuzen guztietan kalte gutxienezkoa, etorkizunean oinezkoentzako izan daitekeen ingurua ez hipotekatzearen.

3. Portuko trafikoa kontrolatzeko garita biribilgunera aldatzea:

- Aldaketa horren bidez portukoa ez den trafikoari kendu egingo litzaioke atzeko kaletik hirigunean sartzeko aukera; eta kale bakarra geratuko litzateke Trintxerpen eta San Pedron sartu zein bertatik irteteko: Euskadi Etorbidea.
- Beharrezko ikusten da herritarrentzako aukera malguagoak bilatzea herrian sartu zein bertatik irteteko.

Bertaratutako pertsonen balioztatutako irakurketatik ondoriozta daiteke badirela balorazio positiboa jasotzen duten dokumentuko alderdi garrantzitsu batzuk, eta ahalik eta alternatibarik onenak bilatzeko eskaera perspektiba desberdinetatik jasotzen duten beste batzuk.

3. Prozesuari eta honen emaitzei buruzko amaierako gogoetak

Lantegietako emaitzen eta funtsezko ideien laburpenak talde elkarrizketa interesgarri bat eragin du bileraren bigarren zatian. Dialogo horretan **prozesuari eta honen**



emaitzei buruzko gogoetak partekatu dira:

Prozesuari eta egiten duen ekarpenari dagokionez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak balorazio positiboa egiten du, espazio honek topaleku gisa, eragile inplikatuak elkarri entzuteko eta elkarrekin hitz egiteko leku gisa eman duen aukerari dagokionez. Solasa bultzatu da Portuaren inguruan, ezinbestekoa baita akordioetara iritsi ahal izatearren.
 - Gizarte eragileek aitortzen eta eskertzen dute erakundeek entzuteko erakutsitako borondatea, eta aipatzen da horrek lagundu duela herriko gatazka bat desblokeatzen -hasieran behintzat-.
- Ñabardura garrantzitsu batez: desblokeo hori positiboa izateko eta denboran zehar irauteko, komunikazioa eta konfiantza landu behar dira, dagoeneko badiren aukerak baliatuta -esate baterako Ciriza eraikina eta horren bokazioa eta etorkizuneko erabilerak-, erakundeen eta Pasaiaiko gizarte eta kultur eragileen arteko elkarlana abian jartzearren.
- Portuko Agintaritza gogobeterik ageri da, aurkezpen eta kontraste prozesuak lagundu egin duelako ikuspegi errealista eta posiblistaz hornituta dagoen eta Portuaren eta Pasaiaeren arteko elkarbizitza bultzatu nahi duen Berrikuspen dokumentua erredaktatzeko egindako ahalegina ikusgarri egiten; eta planteamendu horrek balorazio ona jaso du eragileen aldetik.

Berrikuspen dokumentuaren kontrasteko konklusioei dagokienez:

- Aldundiak prozesuko emaitzak hartu eta maila desberdinetan balioesten ditu:
 - Alde batetik, prozesuak ahalbidetu du Plan Bereziaren edukiarekin lotutako zenbait alderdi identifikatzea; horiek sakonago aztertu beharko dituzte bai erredakzio alderdiak - Portuko Agintaritzak- bai tramitazio erakundeak -Aldundiak-, irudimenez eta zentzuz jokatzeko bidean betiere.

Azken batean, elkarrekiko ahaleginak lagunduko du, zalantzarik gabe, Plan Berezia hobetzen.

- Bestetik, agerian geratu da erakundeen eta Udalaren arteko dialogoa landu beharra, hain zuzen Pasaiaren erabateko berroneratzea -hirigintza mailan, baina baita gizarte, ekonomi eta ingurumen mailan ere- eskatzen duten herritarrei erantzuten eta ahotsa ematen saiatzearren.
- Portuko Agintaritzaren aldetik oso modu positiboan baloratzen dira konklusioak, "sortzen diren eginkizun eta lanek zailtasun maila egokia dutelako".

Beste era batean esanda, parte hartzen duten eragileen ikuspegitik gehiago sakontzea eskatzen duten kontuak konplexu jotzen dira, Plan Bereziaren esparruan ekiteko eta maneiatzeko modukotzat ere bai aldi berean, eta horrek aukerak ematen ditu dokumentua hobetzeko.

- Pasaiako Udalak sintonia azpimarratzen du, eragileek Plan Bereziako proposamenen gainean egin duten balorazioaren eta erakundearen jarreraren artekoa zehazki. Eta, aldi berean, honakoa eskatzen du:
 - Malgutasuna Plan Berezia formulatu duenari -Portuko Agintaritzari-, proposamenetarako behin betiko planteamendura begira, eta portu/hiri elkarbizitzan aurrera egiteko zabaldu den aukeratik.
 - Entzute aktiborako jarrera Foru Aldundiari, prozesuko ekarpenak kontuan hartuak izan daitezen.

Konpromisoetan eta egin den prozesuari emango zaion **jarraipenean** ere jarri du fokua elkarrizketak:

Hemendik aurrera, zer?

- Foru Aldundiak, prozesu honen bultzatzailea izaki, ondoko pauso hauek zehaztu ditu:
 - Alde batetik, Berrikuspen dokumentua jendaurrean jartzeko eta horri alegazioak aurkezteko prozedura ofizialak bere bideari segituko dio; epea ekainaren 27an amaituko da.
 - Bestetik Aldundiak, Portuko Agintaritzarekin batera, bere gain hartzen du aurkezpen eta kontraste prozesu honetatik ateratzen diren ekarpenak zehatz-mehatz analizatzeko konpromisoa, ahal den guztia azken planteamenduan jasotzearen; eta konpromisoa hartzen du, halaber, parte hartu duten gizarte eta ekonomi eragileei jakinarazteko eta adierazteko azken emaitza, hau da, behin betiko dokumentuan jaso ahal izan diren ekarpenak, eta kanpoan geratu direnak, horretarako argudioekin batera.
 - Aldi berean, azpimarratzen da proiektu gehiago aurreikusi direla Pasaiaren berroneratze integralaren esparruan, eta horien bidez erantzun ahal izango zaiela Plan Berezia jasotzerik ez dagoen beste zenbait konturi.
- Erakundearteko konpromisoaren isla gisa, Eusko Jaurlaritzak zehaztu egin du Trintxerpeko geltokiko obrak hasteko Portuko Agintaritzarekiko hitzarmenaren sinadura, 5 milioi euroko zuzkiduraz hornituz hori.

Eta **zuhurtziaren eta errealismoaren** bidetik ere jotzeko deialdi batez amaitu da:

Plan Berezia tramitatzea eta gauzatzea prozesu luze eta zaila izango da, eta eskatuko du erakunde eta eragileen artean bilatzea Pasaiak behar dituen aukera berriak, bai Plan honen esparruan izan bai beste ekimen osagarri batzuen esparruan izan.

4. Eskerrak ematea eta ixtea

Marisol Garmendiak, Gipuzkoako Foru Aldundiren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak, bilera amaitzeko eskerrak eman dizkie aurkezpen eta kontraste prozesu honekin bat egin nahi izan duten eta ekarpenak eskaini dituzten pertsona eta eragile guztiei, **beren partaidetza eta inplikazioagatik**. Gainera, Aldundiaren, Portuko Agintaritzaren eta Pasaiaiko Udalaren baterako konpromisoa azpimarratu du, horren xedea baita taldearekiko eta herritarrekiko komunikazio bide bat zabalik mantentzea **“Pasaiaiko Portuko Zerbitzugunea Antolatzeko Plan Bereziaren Berrikuspen”** dokumentuaren tramitazioan sortzen diren aurrerapenak partekatzearren.

Eskerrik asko guztioi!